**UDAL OSOKO BILKURA**
**2015 - EKAINA - 13**

SESION PLENARIA MUNICIPAL.
13 - JUNIO - 2015

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2015/06/13
**HASIERA / INICIO:** 12:00
**AMAIERA/FINAL:** 12:15

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**
**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
Javier Luaces Carreño (EAJ-PNV)
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Aritz Arregi Gurrutxaga (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ezohikoa / Extraordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko ekainaren 13an, hamabietan, aurretik deialdia eginda, goian aipatu zinegotziak bildu ziren, hautaturiko zinegotzi-txartela aurkeztu diotenak Udaletxeko Idazkaritza Nagusiari, Udalbatzaren Eraketa Saioa burutzeko.

En la Sala de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las doce horas del día 13 de junio de 2015, se reúnen, previa convocatoria efectuada, los concejales arriba indicados, los cuales han presentado la credencial de concejales electos ante la Secretaría General del Ayuntamiento, al objeto de celebrar la Sesión Constitutiva de la Corporación Municipal.

**Lehena.- Adin Mahaiaren Eraketa.**

**Primero.- Constitución Mesa de Edad.**

Ekainaren 19ko Hauteskunde-araubide Orokorraren 1985/5 Lege Organikoaren 195.2 artikuluak eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa arautzen duen azaroaren 28ko 1986/2568 Errege-dekretuaren 37.2 artikuluak xedaturikoa betetze aldera, Idazkariak hautaturiko zinegotzi zaharrenari, Andoni Elorrieta Arronategi, Mahaiburu izan dadin deitu zion, hautaturiko zinegotzi gazteenak, Aritz Arregi Gurrutxaga, kide gisa lagunduta, Busturiako Udalbatzaren eraketari ekiteko.
Adin Mahaia eratuta, hautaturiko zinegotzi zaharrenak eta gazteenak Udaletxeko Idazkari Nagusiarekin batera, Mahaiburu jaunak irekitzat jo zuen saioa.

En cumplimiento de lo que disponen los arts. 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General, y 37.2 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, funcionamiento y régimen jurídico de las Entidades Locales, el Secretario solicita al concejal electo de mayor edad, Andoni Elorrieta Arronategi, que pase a presidir la Mesa acompañada, como vocal, del concejal electo de menor edad, Aritz Arregi Gurrutxaga, a fin de iniciar la constitución de la Corporación municipal de Busturia.
Constituida la Mesa de Edad, por los concejales electos de mayor y menor edad indicados junto al Secretario General de la Corporación, el Sr. Presidente declara abierta la sesión.

**Bigarrena.- Zinegotzi-txartelen eta hautatuen nortasunaren egiaztapena.**

**Segundo.- Comprobación de credenciales y personalidad de los electos.**

Idazkariak adierazi zuen Gernika-Lumo Eremuko Hauteskunde-batzordeak, Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoaren 108.5 artikuluaren arabera, Busturiako hauteskunde-barrutian 2015eko maiatzaren 24an buruturiko udal-hauteskundeen emaitzei buruzko akta idatzi duela, hautagai-kopurua, boto-emaileen kopurua, hautagaiei emandako botoen kopurua, boto zuriena, baliogabeko botoena, hautagai bakoitzak eskuraturiko botoena eta aulkiena, hala nola Busturiako udalerrirako hautaturiko zinegotzien izenen zerrenda adierazita, honako laburpenaren arabera:

- Hautagai-kopurua: 1.374
- Boto-emaileen kopurua: 965
- Hautagaiei emandako boto-kopurua: 926
- Boto zurien kopurua: 22
- Boto baliodunen kopurua: 948
- Baliogabeko botoen kopurua: 17

El Secretario manifiesta que la Junta Electoral de Zona de Gernika-Lumo, en cumplimiento de lo que dispone el art. 108.5 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General ha extendido el acta de proclamación del resultado de las elecciones municipales celebradas el día 24 de mayo de 2015 en la circunscripción electoral de Busturia, certificando el número de electores, de votantes, de votos a candidaturas, de votos en blanco, de votos nulos, el número de los votos y escaños obtenidos por cada candidatura, así como también la relación nominal de concejales electos para el municipio de Busturia según resumen siguiente:

- Número de electores: 1.374
- Número de votantes: 965
- Número de votos a candidaturas: 926
- Número de votos en blanco: 22
- Número de votos válidos: 948
- Número de votos nulos: 17

| Hautagaitzak | Eskuraturiko botoak | Aulki-kop. |
|---|---|---|
| E.H. Bildu | 320 | 3 |
| EAJ-PNV | 380 | 4 |
| BIT | 202 | 2 |
| PSE-EE | 24 | |

Emaitza horren arabera, Hauteskunde-batzordeak hautaturiko zinegotzi izendatu zituen hautagaik, izen-zerrenda honen arabera:

- Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
- Javier Luaces Carreño (EAJ-PNV)
- Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
- Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
- Andoni Elorrieta Arronategi (BILDU)
- M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (BILDU)
- Aritz Arregi Gurrutxaga (BILDU)
- Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
- Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

Idazkari Nagusiak adierazi zuen zinegotzi guztiek Eremuko Hauteskunde-batzordeak emandako zinegotzi-txartela aurkeztu zutela eta, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985/7 Legearen 75. artikuluaren arabera, denek aurkeztu ziotela Idazkaritza Nagusiari Ondasunen Erregistroan eta Jardueren Erregistroan inskribatzeko nahitaezko adierazpena.

| Candidaturas | Votos obtenidos | Núm. escaños |
|---|---|---|
| E.H. Bildu | 320 | 3 |
| EAJ-PNV | 380 | 4 |
| BIT | 202 | 2 |
| PSE-EE | 24 | |

De acuerdo con el resultado reflejado, la Junta Electoral ha proclamado concejales electos a los candidatos de acuerdo con la siguiente relación nominal:

- Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
- Javier Luaces Carreño (EAJ-PNV)
- Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
- Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
- Andoni Elorrieta Arronategi (BILDU)
- M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (BILDU)
- Aritz Arregi Gurrutxaga (BILDU)
- Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
- Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

El Secretario General informa de que todos los concejales han presentado la credencial expedida por la Junta Electoral de Zona y que, de conformidad con el art. 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, todos han presentado en la Secretaría General la preceptiva declaración para la inscripción en los Registros de Bienes Patrimoniales y en el Registro de Actividades.

**Hirugarrena.- Zinegotzien zina.**

Jarraian, hautaturiko zinegotziak euren karguez jabetu ziren.

**Tercero.- Juramento o promesa de los concejales.**

Acto seguido, los concejales electos toman posesión de sus cargos.

**Laugarrena.- Udalbatzaren eraketa-adierazpena.**

Behin nahitaezko izapideak beteta, Adin Mahaiburuak, indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkion ahalmenen arabera, Busturiako Udalbatza formalki eratutzat jo zuen.

**Cuarto.- Declaración de constitución de la Corporación.**

Una vez cumplidos los trámites perceptivos el Presidente de la Mesa de Edad, en ejercicio de las facultades que otorga la legislación vigente, proclama formalmente constituida la Corporación Municipal de Busturia.

**Bosgarrena.- Alkatearen hautaketa.**

Mahaiburu jaunak iragarri zuen jarraian alkatea hautatuko zela, gogoratuta, HAOLOren 196. artikuluaren arabera, hautagai izan daitezkeela hautagaitza bakoitzaren zerrendaburuak; galdetu zuen zein hautagaitza aurkezten ziren.
EAJren aldetik, Aitor Aretxaga Telletxea jauna.

**Quinto.- Elección de alcalde.**

El Sr. Presidente anuncia que, seguidamente, se procederá a la elección del alcalde, recordando que, de conformidad con el art. 196 de la LOREG, pueden ser candidatos los cabezas de lista de cada candidatura y pregunta qué candidaturas se presentan.

EH Bilduren aldetik, Andoni Elorrieta Arronategi jauna.
BITen aldetik, Jon Ander Zulueta Andicoechea jauna.
Hautagaitzak bozkatuta, emaitza hau atera zen:

- Aitor Aretxaga Telletxea jauna, lau boto.
- Andoni Elorrieta Arronategi, hiru boto.
- Jon Ander Zulueta Andicoechea, bi boto.

Azkenik, hautagaietako batek ere ez zuenez lortu Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 196.b artikuluan ezarritako gehiengo absolutua, Idazkariak Aitor Aretxaga Telletxea jauna izendatu zuen Busturiko alkate hautetsi, herritarren boto gehien erdietsi dituen zerrendako (EAJ-rena) buru zein heinean.

Por parte de EAJ-PNV se presenta la candidatura de D. Aitor Aretxaga Telletxea.
Por parte de EH Bildu se presenta la candidatura de Andoni Elorrieta Arronategi.
Por parte de BIT se presenta la candidatura de Jon Ander Zulueta Andicoechea.
Sometidas a votación las candidaturas se produjo el siguiente resultado:

- Aitor Aretxaga Telletxea, cuatro votos.
- Andoni Elorrieta Arronategi, tres votos.
- Jon Ander Zulueta Andicoechea, dos votos.

Finalmente, al no obtener ninguno de los candidatos la mayoría absoluta establecida en el art. 196.b de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General, por el Secretario se proclama alcalde electo de Busturia a Aitor Aretxaga Telletxea por encabezar la lista de EAJ-PNV que ha obtenido mayor número de votos populares.

**Seigarrena.- Alkatearen kargu-jabetzea.**

Jarraiki, Aretxaga jaunak karguaz jabetu zen eta Adin Mahaiburuak agintaritza-makila eman zion.

Ondoren, Aretxaga jaunak honako hitz hauek esan zituen:

"Egun on guztiori:
Gaur, egun garrantzitsua da neuretzat. Busturiko Alkate izendatua izatea ohore bat da eta aldi berean erantzukizun handia be bai.
Erantzukizun hau neure konpromiso eta sakrifizio pertsonala guztiagaz onartzen dot.
Eusko alderdi Jeltzaleari be eskerrak eman gura deutset, neure aldeko apustua egiteagatik Busturiko alkategaia izateko.
Era berean, eskerrak emon gura deutset 2015-2019 legealdi honetarako geure proiektuaren alde egin dauen Busturiko ehundaka gizon-emakumeei eta botoa geuri emon ala ez gaurtik aurrera, seguru egon busturitar gizon-emakume guztien Alkatea izango naizela.
Gaur, etapa barri bat hasten da. Orain arte hauteskunde programa baten proposamenak izan direnak errealitate bihurtu behar dira, Busturia hobetu eta alkarregaz bizitzeko lekua izan daiten.
Gaur, legealdi barri bat hasten da. Hemendik, neure

**Sexto.- Toma de posesión del alcalde.**

A continuación, el Sr. Aretxaga toma posesión del cargo y el Presidente de la Mesa de Edad procede a la entrega de la vara de mando.
Seguidamente el Sr. Aretxaga pronuncia las siguientes palabras:

"Egunon a todos:
Hoy es un día importante para mí. Ser nombrado alcalde es un honor pero una responsabilidad muy grande también.
Acepto esta responsabilidad con todo mi compromiso y sacrificio personal.
También quiero dar las gracias al PNV por haber apostado por mí para ser el candidato a alcalde de Busturia.
Asimismo, quiero agradecer a los cientos de mujeres y hombres que han estado a favor de nuestro proyecto para la legislatura 2015-2019, y aunque no nos hayan votado a nosotros, estar seguros de que voy a ser alcalde de todos los hombres y mujeres de Busturia.
Hoy damos comienzo a una nueva etapa. Hay que convertir en realidad las propuestas que hasta ahora han sido un programa electoral, para mejorar Busturia y que sea un lugar donde convivir todos.
Hoy comienza una nueva legislatura. Desde aquí les ofrezco mi verdadera colaboración a los demás grupos

egiazko eskaintza emoten dot hemen dagozan gainerako udal-taldei, udal politika jardunean konstruktiboki parte hartzeko.

Momentu honetatik, bai ni neu Alkate bezala, bai gobernu taldeko zinegotziak, zeuen eskura gagoz.

Jar gaitezan, gaur berton, lan egiten Busturia hobe baten alde.

Eskerrik asko barriro guztioiri, bereziki zapatu goiz honetan hona hurbildu zarenei. Mila esker zeuen presentziagatik.

Gora Busturia!"

Jarraiki, Larrabaster andreak, Bilduko zinegotzien ordezkariak, hitza hartzeko txanda bukatuta, zera adierazi zuen:

"Gaur, datozen lau urteei begira, bide berri bat hasten deu Udal honek. E.H. Bildutik lehenik eta behin, eskerrak eman gure deutseguz gure aldeko hautua egin eta babesa eman deuskuen herritarrei, eta beste aukera batzuk hautatuz herriaren hoberen desio duten herritar guztiei, baita Alkate berria zoriondu be, ibilbide berri honetan zortea izate espero dogu.

E.H. Bilduk, pleno honetan, herri guztiari argi utzi gura deutso hauteskundeetatik hona ez duela harremanetarako inolako deirik jaso, gure ustez Eusko Alderdi Jeltzaleari iniziatiba politikoa hartzea tokatzen zitzaion eta zoritzarrez ez da horrela izan.

Gure ardura, oposizioan, zorrotz jokatzea izango da, herriarekin dekogun konpromisoagatik gure programa defendituko dugu:

- Udal zabal eta ireki bat, Udala herritarrena izatea nahi dugu, parte hartzeari bideak irekiz, instituzioen gardentasuna aldarrikatu eta gauzatuko dugu. Hautetsiok herritarren bozeramaileak izan behar dogu, herrian antolatzen diren ekimenetan parte hartuz eta bultzatuz.
- Euskara eta gure ikurren alde orain arte egon den konpromiso mailari eutsi behar deutsagu, euskera ikastaroekin, UEMAn jarraituz, ….. baita euskal kultura herrikoia eta ez elitista bultzatuz.
- Erabakitzeko eskubidearen aldeko lanen akordio ahalik eta zabalenak bilatuko doguz, erakundeetan zein kaleko eragileekin, Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarron eskuetan egon dadin.
- Udal ekologista, jasangarritasunaren alde, hau da, fracking teknika, mega proiektu urbanistiko, edota

políticos, para tomar parte constructivamente en la actividad política del Ayuntamiento.

Desde este momento, tanto yo como alcalde, como los concejales del grupo de gobierno, estamos a vuestra disposición.

Pongámonos, hoy mismo, a trabajar por un Busturia mejor.

Gracias de nuevo a todos, especialmente a los que os habéis acercado este sábado por la mañana. Gracias por vuestra presencia. Gora Busturia!"

A continuación, la Sra. Larrabaster, en representación de los concejales de BILDU, manifiesta:

"Hoy, mirando a los próximos cuatro años, este Ayuntamiento comienza un nuevo camino. Desde E.H. Bildu, ante todo, queremos agradecer a los vecinos que nos han votado y nos han apoyado, y a todos los vecinos que, eligiendo otras opciones, desean lo mejor para el pueblo, felicitar también al nuevo alcalde, y esperamos que tenga suerte en su nueva trayectoria.

E.H. Bildu, en este Pleno, quiere dejarles claro a todos los vecinos que desde el día de las elecciones hasta hoy no ha recibido ninguna llamada para ninguna relación. A nuestro parecer le tocaba tomar la iniciativa política al Partido Nacionalista Vasco, pero, por desgracia, no ha sido así.

Nuestra responsabilidad será actuar rigurosamente, defenderemos nuestro programa por el compromiso que tenemos con el pueblo:

- Un Ayuntamiento amplio y abierto, queremos que sea de los vecinos, abriendo camino hacia la participación, proclamaremos la transparencia de la instituciones, y lo realizaremos. Los elegidos tenemos que ser portavoces de los vecinos, promoviendo y participando en las actuaciones que se realizan en el pueblo.
- Tenemos que mantener al mismo nivel de compromiso que tenemos con el euskera y nuestros símbolos, con cursos de euskera, siguiendo en UEMA, y también impulsando la cultura popular y no elitista.
- Buscaremos acuerdos para trabajar a favor del derecho a decidir en las instituciones y en los agentes populares, para que el futuro de Euskal Herria esté en manos de los vascos.
- Un Ayuntamiento ecologista, a favor de la sostenibilidad, esto es, haciendo frente a modelos destructivos

Guggenheim Urdaibai bezalako eredu txikitzaileen aurka gogor eginez.

- Udal feminista, berdintasunaren diskurtso hutsak baino harantzago joaten dena bultzatuko dugu.
- Plan orokorrean hartutako konpromiso ez espekulatiboak manten daitezen borrokatuko dogu, batez be etxebizitza politikan.
- Eta ezkertiarrak garenez krisiaren ondorioei aurre egiten arituko gara. Euskal herritar guztien eskubide sozialek ditugu lehentasun. Horregatik, EH Bildurentzat, herritar guztien ongizateak instituzio ororen politika publikoen erdigunea izan behar du. Gutxien dutenen aldeko jarduna izango da gurea, murrizketa sozialei aurre egin eta bizitza duin baterako pertsona orok behar dituen baldintzak lortzeko borrokatuz.
- Giza eskubide eta memoria historikoa bultzatzen jarraituko dogu, baina ez bakarrik frankismo sasoikoa, baizik eta 1978tik hona busturitar asko sufritutakoa salatuz. Agerian jarriz, gugandik ehunka kilometrotara, frantziar eta espaniar estatuan, dispertsaturik dauden preso politikoek sufritzen daben giza eskubideen ukapena, Ibon Goieaskoetxea bezala, gaur egun bisita eskubidea bermatzeko borrokari ekin behar deutsola, janariari uko eginez, bere ziegatik urten barik protesta egiten.

Esan dogun bezala, oposizio zorrotza egingo dogu, lanean ionarritutakoa, Busturia eta Eskal Herriaren alde lan egiteko hautua egiten dogu."

Azkenik, Zulueta jaunak, Busturia Independiente Taldearen izenean, zera esan zuen:

"Gure partetik esan nahi dugu, Busturia Independiente Taldeak, alkate berria zoriondu nahi duela bere izendapen egun honetan, eskerrak eman nahi diogu busturiko herritarrei beraien boskarekin guregan jarritako konfiantzagatik. Busturia Independiente Taldea ideologia ezberdinetako auzotarrekin osatuta dago, Eusko Alkartasunako integranteak zirenekin eta beste batzuekin. Denok batuta ideia batetan, Udal kudeaketan, eta hori izango de agure helburua. Alkate Juanak gure herria hobetzeko lan egin behar du, herritarrei harrera ematea eta beraien zerbitzuetara egotea, guk gure proposamenak defendatuko ditugu Batzorde eta Pleno bakoitzean, baita Busturirako onak direla iruditzen zaizkigun alderdi guztien proposamenak. Gureak egi-

como la técnica del fracking, megaproyectos urbanísticos o el Guggenheim de Urdaibai.

- Un Ayuntamiento feminista, impulsaremos lo que vaya más allá de los discursos vacios de la igualdad.
- Lucharemos para mantener los compromisos no especulativos del Plan General, sobre todo en política de vivienda.
- Y como somos izquierdistas, trabajaremos haciendo frente a las consecuencias de la crisis. Tienen prioridad los derechos sociales de todos los vascos. Por eso, para E.H. Bildu, el bien de todos los ciudadanos tiene que ser el centro de las políticas públicas de todas las instituciones. Nuestro trabajo será a favor de los que menos tienen, hacer frente a las recortes sociales luchando por y para conseguir las condiciones necesarias una vida digna.
- Seguiremos impulsando los derechos sociales y la memoria histórica, pero no sólo en la época del franquismo sino que denunciando lo pasado por muchos buturianos desde el año 1978 hasta ahora. Dando a demostrar que a cientos de kilómetros de nosotros, en los estados español y francés, muchos presos políticos sufren la negación de los derechos humanos, como Ibon Goieaskoetxea, que tiene que luchar por su derecho a visitas, haciendo una huelga de hambre, sin salir de su celda para protestar.

Como hemos dicho, vamos a hacer una oposición estricta, basada en el trabajo, hemos elegido trabajar por Busturia y Euskal Herria."

Por último, el Sr. Zulueta, en representación de Busturia Independiente Taldea, dijo:

"Queremos decir por nuestra parte, que Busturia Independiete Taldea quiere felicitar al nuevo alcalde el día de su nombramiento, queremos agradecer a los vecinos de Busturia que con su voto han puesto su confianza en nosotros. Busturia Independiente Taldea está compuesto por vecinos de diferentes ideologías, con integrantes que eran de Eusko Alkartasuna y con otros. Todos unidos en una idea, en la gestión municipal, y ese será nuestro objetivo. El Sr alcalde tiene la obligación de trabajar para hacer mejor nuestro pueblo, atender y servir a sus ciudadanos, nosotros defenderemos nuestras propuestas electorales en cada comisión y cada pleno, así como las propuestas de todos los partidos que consideremos que son buenas para Busturia, haciéndolas nuestras. Eskerrik

nez. Gracias."

asko."

Alkatetzak besterik ez zuela, bukatutzat jo zen saioa, hamabi eta erdietan, eta adosturikoen inguruan Alkate jaunak eta fede ematen dudan Idazkariak sinaturiko akta hau idatzi da.

No habiendo más asuntos que tratar por la Presidencia, se levanta la sesión siendo las doce horas quince minutos y de lo acordado se extendió la presente acta que firman el Sr. alcalde y el Secretario que certifico.

**Alkatea**/El alcalde

**Idazkaria**/El secretario,

**Aitor Aretxaga Telletxea**

**Víctor-Martín Amparan Álvarez**